Ikaslea: Iñigo Galdeno Perez
Tutorea: Koldo Tellerria Andueza



PORTUGALETEKO MULTZO MONUMENTALAREN INFORMAZIOA



SANTA MARIA KALEAREN MENDEBALDEKO ALTXAERA. Eskala 1 : 1.000

EZKERRALDEA

Bilboaldeko (Bizkaia) azpi-eskualdea da. Historikoki, hala ere, Enkarterriko azpi-eskualdea izan da. Izenak berak dioenez, Ibaizabalen ezkerreko ibaiertzeko esparrua hartzen du. Izena XIX. mendean asmatu zen, baina 1979 urtera arte ez zen ofiziala, eta gaur egun Lurralde Antolamendurako Gidalerroan azpi-eskualde izenarekin agertzen da. Hurrengo lau udalerri hartzen ditu; Barakaldo (100.000 biztanle eta 25km²) Portugalete (47.000 biztanle eta 3km²) Santurtzi (47.000 biztanle eta 7km²) eta Sestao (29.000 biztanle eta 3km²). Hau da, eskualdeak gaur egun 230.000 biztanle ditu, eta euskal Herriko bosgarren (Barakaldo), zortzigarren (Portugalete) eta bederatzigarren (Santurtzi) udalerririk populatuenak inguru honetakoak dira. XX. mendean, bere ezaugarri historiko nagusia industriarekin lotutakoa izan da.

PORTUGALETE

Portugalete hiribildua Maria Diaz Harokoak eratu zuen 1322. urtean, Bizkaiko beste hiribildu batzuk bezala. Aurretik, Enkarterriko arrantzaleen herrixka txikia izan zen Portugalete. XIX. mendean herriaren jarduera nagusia izan zen arrantza industria eta zerbitzuak ordezkatuz joan ziren. Kostaldean izanik, haren hondartzaz eta bainuetxeaz, burgesia berriak bertan kokatu zituen bere udarako etxebizitzak, eta Kai Berriaren inguruan bere jauregitxoak eraiki zituen. Hala, XX. mendean zehar Portugalete Ezkerraldeko merkataritza eta aisialdirako gune bilakatu zen. Portugaleten ez zen fabrika asko ezarri, dena den, herria industrializazioak erakarritako biztanleria handiaren jomuga bilakatu zen eta milaka etxebizitza eraiki ziren Portugaleteko alde zaharra zegoen gunetik harago, ekialdetik mendebaldera.

SANTA MARIA KALEAREN EKIALDEKO ALTXAERA. Eskala 1 : 1.000

MULTZO MONUMENTALA

Otsailaren 6ko 29/1996 dekretuak Portugaleteko Hirigune Historikoari Kultura Ondasuneko izendapena eman zitzaion, Monumentu Multzoaren mailakoa. Multzo monumentaleko eraikuntzek hiri eremu zaharrena osatzen dute, eta hiri bilbe gotikoa mantendu arren, eraikin gehienak XIX. mendeko eta XX. mende hasierako eraikuntzak dira, eta otsailaren 6ko 29/1996 dekretu katalogoaren arabera errenazentista, gotikoa, barrokoa, eklektikoa, neoklasikoa, arrazionalista, modernista edo historizista estiloen eraikuntzak daude. Ezarritako mugak eta haien inguru hurbilak proposatutako Plan Estrategikoaren helburuak izango dira, eta Gradu Amaierako Lana garatzeko Merkatua hartuko da proposamen utopiko bat osatzeko.



PORTUGALETEKO ALDE ZAHARRAREN MULTZO MONUMENTALA. Eskala 1 : 2.000



PORTUGALETEKO ALDE ZAHARRAREN MULTZO MONUMENTALAREN BEHEKO SOLAIRUA. Eskala 1 : 2.000



PORTUGALETEKO ALDE ZAHARRAREN MULTZO MONUMENTALAREN LEHENENGO SOLAIRUA. Eskala 1 : 2.000



EL SOLAR PLAZAREN ALTZAERA. Eskala 1 : 250

CASILDA ITURRIZAR KALEAREN MENDEBALDEAKO ALTXAERA. Eskala 1 : 1.000

VICTOR CHAVARRI KALEAREN MENDEBALDEAKO ALTXAERA. Eskala 1 : 1.000

COSCOJALES KALEAREN MENDEBALDEAKO ALTXAERA. Eskala 1 : 1.000

CASILDA ITURRIZAR KALEAREN EKIALDEKO ALTXAERA. Eskala 1 : 1.000

VICTOR CHAVARRI KALEAREN EKIALDEKO ALTXAERA. Eskala 1 : 1.000

COSCOJALES KALEAREN EKIALDEKO ALTXAERA. Eskala 1 : 1.000



I.A. ERABILERA

ETXEBIZITZAK

KOPURUA

Eusta! datuen arabera Portugalete osoan 21.085 etxebizitza daude, horietatik 508 alde zaharreko multzo monumentalean kokatzen dira, %2,4a.

DISTRIBUZIOA

Distribuzioan ez dira aurkitu sestra azpiko etxebizitzak. Berriz, %4a beheko solairuan kokatzen da. Aztertutako eremuan eraikuntzen batezbesteko etxebizitza kopurua 6 da, baina hau 11etik 15tera luzatzen da.

DENTSITATEA

Portugaleteko dentsitate gordina 64etxe/ha da eta multzo monumentalarena 95etxe/ha.

ERAIKIGARRITASUNA

Multzo monumentalaren eraikigarritasuna %46a arte txikiagotzen da.

BATEZBESTEKO AZALERA

Batezbesteko azalera 82m² izan arren, etxebizitza txikienak 40 eta 45 metro karratu arteko azalerak dauzkate, eta handienak 125 eta 150 metro karratu artekoak.

LOKALAK

KOPURUA

Udal datuen arabera multzo monumentalean 228 lokal daude.

DISTRIBUZIOA

Sestra azpiko etxebizitzak ez egon arren 16 lokal aurki ditzakegu, egoera hau eraikuntzen adinak bultzatzen du. Lokal gehienak beheko solairuan kokatzen dira, 180 inguru. Besteak lehenengo solairuan daude, %4a.

ERAIKIGARRITASUNA

Lokal eta etxebizitzen arteko erlazioa apagarria da, multzo monumentalean lokalen eraikigarritasuna %22a arte handitzen delako.

BATEZBESTEKO AZALERA

Batezbesteko azalera 57m² da. Txikienak 15 eta 25 metro karratu arteko azalerak dauzkate, berriz handienak 100 eta 120 metro karratu artekoak.

TRASTELEKUAK ETA BESTE ERABILERAK

Eraikin gehienek ez daukate trastelekurik, totalean 119 daude. (Hau da, 0,20 trasteleku/etxebizitza)

APARKALEKUAK

Multzo monumentalean bakarrik 126 aparkaleku daude. Gainera, horietatik 93 plaza hotelean daude. Beraz, estandarra 0,06 arte txikitzen da.

EKIPAMENDUAK

Nahiz eta ekipamendu erlijiosoak, kulturalak, administratiboak eta irakaskuntzako ekipamenduak egon, eskaintzen duten zerbitzua gero eta murriztuagoa da. Totalean 17.000m² inguru daude.

I.A. BIZIGARRITASUNA

ETXEBIZITZAREN BIZIGARRITASUN MAILA

Nahiz eta irudikatutako kategoriak ona, ertaina, txarra eta oso txarra izan, bizigarritasun maila azfertzeko hurrengo aspektuak kontuan hartu dira: Alde batetik, gela desberdinen argiztapen eta aireztapena, eta beste aldetik, tamaina ez ezik haien distribuzioak ere aztertu egin dira. Adibidez, kasu askotan logelek edo bainugelek sukaldearekin konexio zuzena daukate. Beraz, atal hauek kontuan hartuz bizigarritasun mailak ezarri dira. Nahiz eta maila orokorra ertaina izan, %25 txarra edo oso txarra da.

ESPAZIO KOMUNAREN BIZIGARRITASUN MAILA

Etxebizitzarekin gertatzen den bezala, kasu honetan hurrengo alalak aztertu egin dira: Alde batetik, argiztapen eta aireztapena, eta beste aldetik, tamaina eta distribuzioa. Adibidez, eraikin batzuetan nukleo bertikala txikiegia izateaz gain, ez dauka argiztapenik edo aireztapenik. Atal hauek kontuan hartuz bizigarritasun mailak ezarri dira, hortaz, maila orokorra txarra da.

I.A. IRISGARRITASUNA

IGOGAILUA

Etxebizitza erabilera nagusia duten eraikinak 88 baldin badira, %75ak ez dauka igogailurik.

ESKAILERAREN IRISGARRITASUN MAILA

Berriro, nahiz eta kategoriak ona, ertaina, txarra eta oso txarra izan hauek dira kontuan hartutako datuak: Burukada, igoeraren zailtasuna, egituraren egoera, kontserbazio maila, tamaina ... Atal hauek kontuan hartuz irisgarritasun mailak ezarri dira. Orokorrean eskaileraren egoera ona da. Dena den, %25ek, igogailuak dauzkatenek irisgarritasun maila ona daukate, eta beste %75aren erdiak maila txarra. Beraz, desberdintasuna eraikinen artean handitzen da.

BEHEKO SOLAIRUAREN IRISGARRITASUN MAILA

Multzo monumentalean ez dago irisgarritasunik beheko solairuan, bakarrik bi lokal irisgarriak dira: fisioterapia zentroa eta farmazia. Guztiek kota aldaketa daukate, batzuk eskaloi txiki batekin gainditzen den diferentzia daukate, baina gehienek metro edo metro erdiko kota aldaketa daukate. Ohikoa da, lokaletara edo portaletara igo baino lehen hiruzpalau eskailera maila topatzea.

MULTZO MONUMENTALAREN INFORMAZIOA

Multzo monumentala ikertzeko hiru atal desberdin aztertu ditut;

INGURUNE ARKITEKTONIKOA (I.A)
INGURUNE SOZIALA (I.S)
HIRI INGURUNEA (H.I)

Ondoan adibide moduan Ingurune Arkitektonikoaren informazioa erakusten da, hau da; ondarea, morfologia, erabilera, bizigarritasuna eta irisgarritasuna.

Bestaldetik, Ingurune Sozialean eta Hiri Ingurunean beste hainbat atal ikertu ditut, alegia; etxe huts kopurua, batez besteko familia tamaina, biztanleriaren sexua eta adina, hiri ingurunearen segurtasuna, irisgarritasuna, jabetasuna, kontserbazioa, ekipamenduen egunerokotasuna, ustiapena, eta abar.

I.A. ONDAREA

ERAIKUNTZA URTEA

Multzo monumentaleko eraikuntzek hiri eremu zaharrena osatzen dute, nahiz eta hiri bilbe gotikoa mantendu, eraikin gehienak XIX. mendeko eta XX. mende hasierako eraikuntzak dira. Berriz, inguruko eremuen eraikinak 1950 urtetik aurrera eraiki dira.

ERAIKUNTZAREN KONTSERBAZIO EGOERA

PERCH egileen kanpo lana baliogarria izan da eraikuntza bakoitzaren hondatze maila konprobatzeko. Bildutako datuekin esan dezaket kontserbazio egoera orokorra ona dela. Gainera, kontserbazio ertaina daukatenak eskasak dira, eta eskasagoak egoera txarra daukatenak.

ERAIKUNTZAREN ESTILOA

Nahiz eta esan dudan moduan hiri bilbe gotikoa mantendu, otsailarenéko 29/1996 dekretu katalogoaren arabera errenazentista, gotikoa, barrokoa, eklektikoa, neoklasikoa, arrazionalista, modernista edo historizista estiloen eraikuntzak daude.

OTSAILAREN 6 KO 29 / 1996 DEKRETUAREN BABESA

Dekretuak Portugaleteko Hirigune Historikoari Kultura Ondasuneko izendapena eman zitzaion, Monumentu Multzoaren mailakoa. Mugen barruko ondarea honako sailkapen arabera antolatzen da: babes berezia duten elementuak, erdi mailako babesa, oinarrizko babesa, elementu ordezkagarriak eta bat ez datozen elementuak (diskordanteak). Elementu gehienek oinarrizko babesa daukate, eta bakarrik, bost eraikin diskordanteak dira.

INDARREAN DAGOEN PLAN BEREZIAREN BABESA

Plan berezia dekretua baino lehen idatzi zen, beraz babes araubidea ez ezik elementu bakoitzaren babes maila ere desberdinak dira. Adibidez, elementu babestuak eta ez babestuak besterik ez daude.

I.A. MORFOLOGIA

ERAIKUNTZAREN OKUPAZIOA

Eraikin guztien artean 21.132m² lur okupatzen dituzte.

ETXEBIZITZAK

Eraikuntzaren batezbesteko okupazioa 125m² da. Dena den, kontraste handia existitzen da, 30-60m²ko eraikinen eta 200-270m²koen artean. Eraikin guzti hauek 11.777m² lur okupatzen dituzte.

BESTEAK

Bestaldetik, beste erabilerarako eraikinek (ekipamenduak, hertziarioak, monumentuak, ...) 8.821m² okupatzen dituzte.

ORUBE HUTSAK

Azkenik, orube hutsek erabilerarik gabeko 500m² lur gordetzen dituzte.

SESTRA AZPIKO ETA GAINEKO ERAIKITAKO AZALERA

Eraikin guztien artean 90.233m² eraikiak daude.

ETXEBIZITZAK

Eraikuntzaren batezbesteko azalera 650m² da. Dena den, kontraste handia existitzen da 120-250m²ko eraikinen eta 1.000-1.500m²koen artean. Eraikin guzti hauek 59.800m² solairu batzen dituzte.

BESTEAK

Bestaldetik, beste erabilerarako eraikinek (ekipamenduak, hertziarioak, monumentuak, ...) 30.300m² azalera dituzte.

SESTRA AZPIKO ETA GAINEKO SOLAIRU KOPURUA

Sestra gaineko eta azpiko solairuen kopurura ezagutzea interesantea da, zenbat soto eta erdi-soto daude, zenbat dira fatxadatan adierazten diren solairuak, eta abar. Ia ez daude sotoak multzo monumentalean, eta sotoak dauzkatenak berrienak dira. Berriz, kota aldakefagatik erdi soto asko sortzen dira, behintzat eraikin modernista ez eklektikoetan. Multzo monumentalean b + 3 eta b + 4 altuera ohikoenak dira, baina b + 2 adibideak aurki ditzakegu. Ondorioztatu dezagun, multzo monumentaleko altuera baxua eta heterogeneoa dela, inguruko eremutan b + 7 eta b + 10 arteko altuerak ikus ditzakegulako.